Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko urriaren 29a, osteguna — 207 — Jueves, a 29 de octubre de 2026

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

259/2026 Foru Dekretu-Ebazpena, urriaren 20koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko administrazio-prozeduretan 2027. urteko egun baliogabeak deklaratzen dituena.

Ekainaren 9ko 90/2026 Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2027. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu ostean (2026ko uztailaren 16ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 134. zk.), eta Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkariaren 2026ko irailaren 21eko Ebazpenaren bidez Gipuzkoako tokiko jaiegunen 2027rako egutegia ezarri ostean (2026ko urriaren 1eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 187. zk.), Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio bere eskumeneremuko administrazio-prozeduretan epeak zenbatzeko egun baliogabeak zehaztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.7 eta 31.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Hori horrela,

EBAZTEN DUT

Lehen. 2027an eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, azalpen-zatian adierazitako ondorioetarako baliogabetzat joko dira ondorengo hauek:

a) Larunbatak eta igandeak.

b) Ekainaren 9ko 90/2026 Dekretuan zerrendatutako hamabi jaiegunak.

c) Urtarrilaren 20a, tokiko jaieguna Donostian, Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkariaren 2026ko irailaren 21eko Ebazpenaren arabera, udalerri horretan baitago Foru Aldundiaren egoitza nagusia.

d) Uztailaren 31, larunbata eta jaieguna Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan, lehen aipatutako 2026ko irailaren 21eko Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera.

e) Abenduaren 24a eta 31.

Bigarren. Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 31.3 artikuluari jarraikiz, hori izango da erregistro elektronikoan epeak zenbatzean aplikatuko den egun baliogabeen egutegi bakarra.

Egun baliodunetan jarritako epeen zenbaketarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egun baliogabean aurkeztutakoa hurrengo egun balioduneko lehen orduan aurkeztutzat joko da, non eta arauren batek ez duen espresuki onartzen egun baliogabean jasotzea (31.2 artikulua).

Donostia, 2026ko urriaren 20a.—Eider Mendoza Larrañaga, diputatu nagusia. (6927)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADA GENERAL

Decreto Foral-Resolución 259/2026, de 20 de octubre, por el que se declaran los días inhábiles en los procedimientos administrativos del ámbito de competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el año 2027.

Tras la aprobación del calendario oficial de fiestas laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2027 por el Decreto 90/2026, de 9 de junio (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 134, de 16 de julio de 2026), y el establecimiento de las fiestas locales de Gipuzkoa para el año 2027 por la Resolución de 21 de septiembre de 2026 del delegado territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 187, de 1 de octubre de 2026), corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa determinar los días inhábiles a efectos del cómputo de plazos en los procedimientos administrativos de su ámbito de competencia, de conformidad con lo previsto en los artículos 30.7 y 31.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Por todo lo anterior,

RESUELVO

Primero. En el año 2027 y en lo que se refiere a la Diputación Foral de Gipuzkoa, se declaran inhábiles a los efectos expresados en la parte expositiva:

a) Los sábados y domingos.

b) Los doce días festivos relacionados en el Decreto 90/2026, de 9 de junio.

c) El 20 de enero, festivo local en San Sebastián, establecido por la Resolución de 21 de septiembre de 2026 del delegado territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa, por encontrarse en este municipio la sede principal de la Diputación Foral.

d) El 31 de julio, sábado y festivo en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa, de acuerdo con lo previsto en la Resolución de 21 de septiembre de 2026 antes citada.

e) El 24 y el 31 de diciembre.

Segundo. En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 31.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, este será el único calendario de días inhábiles que se aplicará a efectos del cómputo de plazos en el registro electrónico.

A los efectos del cómputo de plazo fijado en días hábiles, y en lo que se refiere al cumplimiento de plazos por las persona interesadas, la presentación en un día inhábil se entenderá realizada en la primera hora del primer día hábil siguiente, salvo que una norma permita expresamente la recepción en día inhábil (artículo 31.2).

San Sebastián, a 20 de octubre de 2026.—La diputada general, Eider Mendoza Larrañaga. (6927)

EK\CV GAO-I-2026-06927